

IKASLE OHIEN PLAZA ADJUDIKATZEA

- **Musika eta Mugimendutik Musika-tresnara urratsa**

Musika lengoia:

1. Dagokien matrikulazioa eginen dute aukeratutako hizkuntza adieraziz.
2. Musika Lengoiarako hizkuntza adjudikatzeko, lehentasun-ordena musika eskolan daramaten elkarren segidako urteei dagokien arabera izanen da.
3. Hizkuntzaren batean eta baldintza beretan eskaera gehiago bada plazak baino, zozketa bat eginen da honela:
 - a. Zerrenda zenbakiduna abizen eta izenarekin.
 - b. Zenbaki bat aterako da eta onartutakoen lehenak leku hori beteko du eta zerrendak aurrera eginen du.
 - c. Aurreko prozesua egin ondoren plazak geratzen badira hizkuntza batean, aukera emanen da plaza libre hauek betetzeko beste hizkuntzan itxarote-zerrenda baldin bada.

Musika-tresna:

1. Dagokien matrikulazioa eginen dute hiru musika-tresna adieraziz lehentasun-ordenan.
2. Musika-tresna adjudikatzeko lehentasun-ordena musika eskolan daramaten elkarren segidako urteei dagokienez eginen da.
3. Baldintza beretan eskaera gehiago bada plazak baino, zozketa bitartez adjudikatuko dira. Zozketa honetan plazarik lortzen ez dutenek musika-tresna aukeratzeko haiek egindako bigarren aukera lehen aukera bezala kontsideratuko da. Zozketa eskaera eta plaza libreen arteko diferentzia handiagoa den musika-tresnatik hasiko da.
4. Aukeratutako hiru musika-tresnetan plazarik lortu ez dutenei, plaza libreak geratzen diren musika-tresnen artean hautatzeko aukera emanen zaie.

- **Musika-tresna aldaketa**

1. Dagokien matrikulazioa eginen dute, lehenik aldatu nahi duten musika-tresna adieraziz eta bigarrenik ikasi duten musika-tresna.
2. Aldaketa egin ahal izanen dute plaza libreak geratzen badira Musika eta Mugimendutik datozen ikasleei musika-tresna adjudikatu ondoren.
3. Eskaera gehiago bada plaza baino zozketa bidez adjudikatuko dira.
4. Ezin badu musika-tresna aldatu, ikasi duen instrumentuan matrikulatua jarraituko du.

IKASLE BERRIEN PLAZA ADJUDIKATZEA

- **Musika eta Mugimendua 4 urte**

1. Dagokien behin-behineko izen-ematea eginen dute aukeratutako hizkuntza adieraziz.
2. Zerrenda zenbakiduna abizen eta izenarekin.
3. Zenbaki bat aterako da eta onartutakoen lehenak leku hori beteko du eta zerrendak aurrera egiten du.

4. Itxarote-zerrenda onartu ez den lehenetik hasten da eta zerrendak aurrera egiten du.
 5. Aurreko prozesuaren ondotik plazak geratzen badira, hizkuntza batean, plaza libre hauek betetzeko aukera emanen da beste hizkuntzan itxarote-zerrenda baldin bada.
- **Musika eta Mugimendua 5, 6 eta 7 urte**
 1. Dagokien behin-behineko izen-ematea eginen dute aukeratutako hizkuntza adieraziz.
 2. Plaza libreak aurreko ikasturteko itxarote-zerrendaren ordena jarraituz betetzen dira, betiere aurtengo ikasturterako behin-behineko izen-ematea gauzatu badute ezarritako epeen barruan. Ez badago plaza librerik, itxarote-zerrendaren partaide izatera pasatuko dira aurreko ordenan.
 3. Izena eman duten berriekin itxarote-zerrenda osatuko da, 4 urtekoekin bezala.
 4. Aurreko prozesuaren ondotik plazak geratzen badira, hizkuntza batean, plaza libre hauek betetzeko aukera emanen da beste hizkuntzan itxarote-zerrenda baldin bada.
 - **Musika Lengoiaren hizkuntza**
 1. Dagokien behin-behineko izen ematea eginen dute aukeratutako hizkuntza adieraziz.
 2. Zerrenda zenbakiduna abizen eta izenarekin.
 3. Zenbaki bat aterako da eta onartutakoen lehenak leku hori beteko du eta zerrendak aurrera egiten du.
 4. Itxarote-zerrenda onartu ez den lehenetik hasten da eta zerrendak aurrera egiten du.
 5. Aurreko prozesuaren ondotik plazak geratzen badira, hizkuntza batean, plaza libre hauek betetzeko aukera emanen da beste hizkuntzan itxarote-zerrenda baldin bada.
 - **Musika-tresnetan berriak**
 1. Dagokien behin-behineko izen-ematea eginen dute hiru musika-tresna adieraziz lehenetsun-ordenan.
 2. Lehenik aukeratu dituzten instrumentuak zozketatzen dira, behin-behinean izena eman duten 4 urtekoen metodo bera erabiliz.
 3. Plaza libreak geratzen diren instrumentuetan, bigarren lekuan aukeratutako musika-tresnaren zozketa eginen da lehen instrumentuan onartuak izan ez direnen artean.
 - **Itxarote-zerrendak**

Ordena indarrean mantenduko da itxarote-zerrenda guztietan, hizkuntzan zein musika-tresnan, baldin eta aurretiko izen-ematea ezarritako datetan egiten bada.

HIRUGARREN ZIKLOA

1. Hirugarren ziklora heldu nahi duten ikasleek, 6.maila amaituta izan beharko dute modu egokian.

BESTE INSTRUMENTU BATEKIN HASI 6. EDO 8. AMAITZEN

1. Beste instrumentu baten 1. mailan behin-behineko izen-ematea egin nahi duten ikasleek, 6. edo 8. amaitzen, dagokien behin-behineko izen ematea egina izan beharko dute.
2. Zozketa bat eginen da aurreko kasuetan bezala.
3. Matrikulatu ahal izanen dira plaza libreak geratu badira ikasle berrien matrikulazioaren ondotik.

BIGARREN MUSIKA-TRESNA

1. Bigarren musika-tresna baten lehen mailan izena eman nahi duten ikasleek, dagokien behin-behineko izen-ematea egina izan beharko dute.
2. Zozketa bat eginen da aurreko kasuetan bezala.
3. Plaza libreak geratuz gero matrikulatu ahal izanen dira ikasle berrien matrikulazioaren ondotik eta 6. eta 8. amaitzen, beste instrumentu batekin hasiko direnen ondotik.